



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO UDALA
Herriko plaza, 1
48142 ARTEA (Bizkaia)

ARTEAKO HAUR ETA GAZTETXOEN AISIALDI ZERBITZUAREN DINAMIZAZIOA.- BALDINTZA PLEGU TEKNIKOAK

<p><u>BALDINTZA EKONOMIKOAK</u></p> <p>Zerbitzu guzti hauek kudeatzeko gehieneko prezioa:</p> <p>20.661,00 € BEZ EZ barne/ urteko</p> <p><u>BALORAZIO IRIZPIDEAK</u></p> <p>1.- Formula bidez kuantifikagarriak diren irizpideak:</p> <p>a) <u>PROIEKTUA</u>.....100 PUNTU.</p> <p>Proiektuan ondokoak agertu beharko dira era egokian zehaztuta:</p> <ul style="list-style-type: none">• Metodologia• Zerbitzu ezberdinen kudeaketa proposamena.• Zerbitzu guztiak era egokian betetzeko antolakuntza, koordinazioa (barnekoa eta Udal eta bestelako eragileekin) eta ebaluazioa• Zerbitzua burutuko duen pertsonalaren proposamena, eta bakoitzaren kurrikulum eta lan ordutegi proposamena zehaztuta.	<p><u>PRECIO DEL CONTRATO</u></p> <p>El precio del contrato de los servicios asciende a:</p> <p>20.661,00 IVA NO incluido./ año</p> <p><u>CRITERIOS DE VALORACIÓN</u></p> <p>1.- Criterios no cuantificables por fórmula:</p> <p>a) <u>PROYECTO</u>.....100 PUNTOS.</p> <p>En este apartado se tendrán que especificar los siguientes aspectos:</p> <ul style="list-style-type: none">• Metodología• Propuesta de gestión de los diferentes servicios• Organización, coordinación (interna y con el Ayuntamiento y demás organismos implicados) y evaluación propuesta para la correcta ejecución de los servicios.• Propuesta del personal a cargo del servicio, con propuesta de jornadas, calendarios laborales y currículum.
--	--

'ARTEAKO HAUR ETA GAZTETXOEN AISIALDI DINAMIZAZIOAREN' ZERBITZU PUBLIKOAK KONTRATATZEKO LEHIAKETA ARAUTZEN DITUEN OINARRI TEKNIKOEN PLEGUA

LEHENENGOA: SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Arteako haur eta gazteen dinamizazioaren zerbitzua udal gazteria eta hezkuntza politika garatzeko tresna bat da.



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO UDALA
Herriko plaza, 1

48142 ARTEA (Bizkaia)

1.1. Udal gazteria politika

1.1.1. Udal gazteria politikaren definizioa

Arteako gazteriar buruzko toki politikaren helburu nagusia heziketa prozesua erraztea da eta herriko partehartzaile aktibo bihurtzea.

1.1.2. Programa estrukturalak

Gazteriar eta hezkuntzari buruzko toki politika horren egituran funtsezko bi jarduera ardatz edo programa daude:

- Aisialdi hezitzaile programa

Aisialdia hezitzailea dela esango dugu heziketa ez formalean eta informalean egindako aisia bada eta pertsonaren garapenarekin (gizarte trebetasunekin) lotutako helburu hezitzaileak baldin baditu, ezagutzak lortzeko bada eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko bada.

- Sustapen programa

Sustapenak kasu honetan zera esan nahi du: haur eta gazteen adierazpenak, ekimenak eta partehartzea laguntzea, bultzatzea eta zabaltzea.

1.1.3. Zeharkako lerroak

Gazteriar buruzko toki politikaren ustez zeharkakoak dira garatutako jarduera guztietan egon behar diren hiru lan lerroak:

- Hizkuntz normalizazioa
- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna
- Inklusioa. Ikuspuntu integratzaile batetik lan egitea baztertuak izateko arriskua azaleratzen duten adierazleak agertzen dituzten gazteen premia eta eskaerak bereziki kontuan hartzea da (ezgaitasunen bat duten gazteak, gizarte habileziarik eza, kanpo jatorriko gazteak, etab.)

Bi irizpidegatik hartu dira aintzat hiru zeharkako lerro horiek:

- Justizia sozialagatik. Gazteri politikak definizioz izaera unibertsala izan behar duen arren, horrek ez du galarazi behar lehentasunak izatea eta ekintza positiboak abian jartzea gutxietsitako taldeen edo arrisku egoeran daudenen alde.
- Euskal kulturaren garapenarekin dugun konpromisoagatik eta, zehatz esateko, bere adierazpen garrantzitsuenetakoarekin dugunagatik: euskal hizkuntzarekin.

1.1.4. Tokiko haur, nerabe eta gazteentzako arreta sarea

Tokiko haurrentzako arreta sarea talde hauetakoren batentzat zerbitzu, programa edo ekipamendu eskaintza iraunkorra duten gizarte eragile guztiek osatzen dute.

Sare honen barruan izaera publiko eragileak ez ezik (herri administrazioa) izaera pribatukoak ere



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO UDALA
Herriko plaza, 1

48142 ARTEA (Bizkaia)

badaude (irabazi asmorik gabeko edo irabazi asmoa duten erakunde eta taldeak).

1.2. Udal hizkuntza politika

1.2.1. Udal hizkuntza politikaren definizioa

Arteako udala UEMA sarean dago. euskara planak hiru helburu estrategiko ditu:

- Euskara belaunaldiz belaunaldi ondorengoetaratzea
- Euskara erabilera-eremuetara zabaltzea
- Hizkuntzaren elikadura, liburu, irati, egunkari eta abarren bidez

Bigarren helburu estrategikoan kokatzen da AISIA jorratzen duen esparrua eta hirugarrenean KULTURA jorratzen duena.

BIGARRENA: KONTRATUAREN XEDEA

2.1. Zerbitzuaren helburu orokorra.

Kontratuaren xedea Arteako Kultur Etxean dagoen udal ludoteka zerbitzua planeatzea, artatzea eta kudeatzea da, plegu honetan ezarritakoaren arabera, eta Hezkuntza eta Gazteria Udal Zerbitzuen jarraibideak betez eta haiekin koordinatuta.

Eta honekin batera Arteako haur eta gazteen aisialdi programa osagarrien dinamizazioak ere garatzea (oporraldietako programak eta herriko egun esanguratsuak (euskararen eguna, indarkeriaren kontrako eguna...).

Ludoteka hiru irizpideren arabera definitzen da:

- ✓ Talde topaketako eta beste ume batzuekin jolasteko lekua, hezitzaile profila duten helduek lagunduta, jarduera ludikoak aholkatzen edo laguntzen dituztenak.
- ✓ Espazio zabal eta seguruen eskaintza, adin bakoitzerako egokiak diren joko eta jolas sorta on batekin, umei jolasteko aukera ezberdinak eskaintzen dizkiena.
- ✓ Irudiaren kulturaren ondorioari aurre egiteko lekua, norberak sortutako irudiak iradokitzen dituzten alternatibekin (sormeneko edo sinboloen jolasa).

2.2. Ludoteka zerbitzuaren helburu zehatzak.

Arteako ludotekaren helburuak hiru taldetan sailkatzen dira, kolektibo ezberdinen arabera:

- Erabiltzaileei dagozkien helburuak
 - Umeak denbora librean eta aisialdian heztea, tekniken eta bitartekoen ezagupena bultzatuz, modu dibertigarrian.
 - Umeen protagonismoa bultzatzea.
 - Arteako umeen garapena balio hauekin bultzatzea: errespetua, bakearen eta justiziaren



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO UDALA
Herriko plaza, 1

48142 ARTEA (Bizkaia)

- kultura, elkartasuna, aukera berdintasuna eta parte hartzea.
- Umeei jarduerak, jokoak, tailerrak eta jostailuak eskaintzea.
- Mutilen eta nesken arteko harremanak erraztea.
- Artean bizi diren ume guztien integrazioa laguntzea.
- Umeen garapen osoa laguntzea (maila afektiboan, kognitiboan eta psikomotorean).
- Aisialdian euskararen erabilera bultzatzea.
- Familiei dagozkien helburuak
 - Gurasoei euren seme-alaben bilakaeraren berri ematea.
 - Gurasoei euren seme-alaben heziketa prozesuarekin zerikusia duten gaietara buruz eta jokoaren eta heziketa prozesuaren arteko erlazioaz aholkatzea eta orientatzea.
 - Eskola-orduz kanpo, egoera ludikoetan euskararen erabilera bultzatzea. Euskara hizkuntza behikular bezala sustatzea eta indartzea.
- Komunitateari dagozkion helburuak:
 - Auzoarekiko identifikazioa mesedetzea, auzoko beste gizarte eragile batzuekin koordinazioa eta lankidetzak mantentzea.
 - Umeek eta gurasoek erabiltzaileentzat interesgarri diren bestelako baliabideak erabili eta ezagut ditzatela mesedetzea.
 - Familia barruko interakzioetan euskararen erabilera sustatzea, hizkuntzaren ikuspegi positiboa bultzatuz.
 - Seme-alaben euskalduntzearekin lotura izan dezaketen ekimenen gaineko aholkularitza edo deribazioa
 - Aukera berdintasunarekin lotura izan dezaketen ekimenen gaineko aholkularitza edo deribazioa
 - Integrazioarekin lotura izan dezaketen ekimenen gaineko aholkularitza edo deribazioa

2.2. Dinamizazio zerbitzuen helburu zehatzak

- **Udaleku irekiak**

Udako oporretan herriko urteko aisialdi programa aberasteko ekintza gehigarriak antolatzea. Uztailen 4 asteko programazioa 4-14 urte bitartekoentzat. (60 partehartzaile). Aste biko bi txandatan banatuko dira, 30 ume txanda bakoitzean. Guztira 92 ordu. Irteerarik ez dagoen egunetan, orduategia 10:00etatik 14:00etara izango da eta irteera egunetan 10:00etatik 17:00etara.
- **Oporraldietako programazio bereziak**

Gabonetan, ihauterietan eta aste santuetan urteko aisialdi programa aberasteko ekintza gehigarriak antolatzea.
- **Herriko aisialdi/kultur ekintzak** (Urtean 3 gutxienez)

Herriko aisialdi eta kultur jarduerak interesgarriak antolatzea. Euskararen eguna, gabonak, ihauteriek, herriko jaiak...

HIRUGARRENA: ZERBITZUA ZUZENTZEN ZAIEN PERTSONAK



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO UDALA
Herriko plaza, 1

48142 ARTEA (Bizkaia)

4 urtetik gorako eta 12 arteko Arteako umeentzat eskainiko ditu bere zerbitzuak. Ludoteka 4-12 urteko adin tarte hori nahiko zabala denez eta espazioa, ordea, mugatua denez, ordutegi ezberdinak mugatuko dira beharrezkoa bada.

3 urtekoei harrera fasea errazteko ordu 1eko txanda izango dute hasieran.

LAUGARRENA: ZERBITZUAREN ZEHAZTAPENA ETA ADJUDIKAZIOAREN BETEBEHARRAK

a. EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK

- Ludotekako aisialdi hezitzaile programa

Urteko programa bat osatu beharko da ekintza ezberdinekin bete daiteke. Ekintza hauen maiztasuna eta ordutegia aldarokorra izango da ekintzaren arabera, baina gutxieneko astero adin tarte bakoitzak ekintza berezi bat izan beharko du.

- Ludotekako hezitzailea haur eta gazteen urteko programaren arduradun

Hezitzaile lanak egitetik aparte, urteko programa osoaren garapen eta ebaluazioaren ardura izango du. Haur eta gazteen nahiak entzun eta udalarekin bitartekari lanak eginez.

- a) Haur eta gazteentzat interesgarria izan daitekeen ahalik eta informazio gehien jaso, garatu eta sortu.
- b) Informazioaren zabalkundea: komunikazio eta propaganda
- c) Arreta zerbitzua: iradokizunak jaso eta informazioa helaraziz.

- Udaleku irekiak eta oporraldietako programazio bereziak

Udaleku Irekia 4 eta 14 urte bitarteko ume eta gazteenxontzako izango dira, eta gehieneko parte-hartzaile kopurua 60koa izango da. Lau aste iraungo du programak. Bi asteko bi txandetan banatuko dira umeak, 30 ume txanda bakoitzean. Aste barruan soilik burutuko dira ekintzak. Programazioaren barruan asteko irteera bat antolatu beharko da.

- Herriko aisialdi/kultur ekintzak

Urtean zehar herriko aisialdi/kultur programaosatze aldera garatuko diren ekintzak izango dira.

b. PROIEKTUAREN FUNTZIOAK

a) Aisialdiaren programazioa, dinamizazioa eta ebaluaketa.

- Ludoteka zerbitzuaren urteko egitaraua egitea eta abiatzea, Hezkuntza eta Gazteriako Udal Zerbitzuekin bat etorriz.
- Urtean zehar herrian esanguratsuak diren ekintza eta jardueren dinamizazioa: gabonak, euskararen eguna, ihauteriak, aste santutako oporrak, udako udaleku irekiak...
- Gurasoei arreta ematea, ume erabiltzaileen hezkuntza prozesuarekin zerikusia duen



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO UDALA
Herriko plaza, 1

48142 ARTEA (Bizkaia)

- orotan.
- Zerbitzuari jarraipena, etengabeko ebaluazioa eta bukaerako ebaluazioa egitea, urtero.
 - Zerbitzuaren erabiltzaile diren umeen datu basea eguneratuta edukitzea, alta eta baxei dagokienez.
- b) Haur eta gaztetxoek parte hartze prozesuak sustatu.
- c) Diru laguntzak eta informazioa bilatu.
- d) Sarea sortu, beste eragileekin koordinazioa eta elkarlana:
- Udaleko gainontzeko sailekin (teknikari, zerbitzu arduradun, zinegotzi...)
 - Herriko eragile soziokulturalekin et eskolarekin.
 - Gainontzeko administrazioekin (Bizkaiko diputazioko gazteria saila, Arratiako udalen mankomunitatea,...).
- e) Zerbitzua abiatzeko behar diren materialen zerrenda egitea, orain dauden materialetatik abiatuta (material didaktikoa, jokoak, jostailuak, liburuak eta ipuinak, eta bestelako materialak).

BOSTGARRENA: HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Orokorrean, Arteako Udalak bete beharko lituzkeen baldintzak betetzea da irizpide nagusia. Gehiago zehaztuz:

Ohiko hizkuntza:

- Begiraleen artean erabiltzen den ohiko komunikazio-hizkuntza, euskara izango da eta inportantea da honen kalitatea zaintzea hizkuntza-eredu egokiak eskaintzeko.

Ahozko hizkuntza:

- Bozgorailuetako mezuak edota, erantzungailu automatikoak, hizkuntza bietan izango dira, lehentasuna emanez euskarari, eta bereziki, zainduko da euskarazko mezua ulergarria eta erraza izatea.
- Telefonoz zein aurrez-aurre lehen hitza, harrera-hizkuntza, eta aurkezpenak, euskaraz izando dira. Horren ondoren herritarrek aukeratzen duen hizkuntzan eskainiko da zerbitzua.
- Musika edo irratia jartzen denean edo ikusentzunezkoak programatzen direnean, lehentasuna izando dute euskarazko kultur-produkzioek.

Idatzizko hizkuntza:

- Herritarrei zuzendutako edozein argitalpen, ohar, jakinarazpen edo beste edozein idatzi hizkuntza ofizial biak erabili beharko dira, lehentasuna emanez euskarari tamainan edo kokapenean.
- Idatziz erabiltzen den hizkuntza egokia, argia eta ulergarria izatea.

Udalaren irudia:

- Udalaren irudia adierazten duten euskarriak, hizkuntza ofizial bietan egongo dira, lehentasuna emanaz tamainan edo kokapenean euskarazkoari.
- Udalak, ume eta haurrentzat edo entzulea erabat euskalduna denean antolatzen dituen ekitaldi publikoetan euskera bakarrik erabiltzeko aukera aztertuko da.

Ordezkapenerako irizpideak:



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO UDALA
Herriko plaza, 1

48142 ARTEA (Bizkaia)

- Langileen ordezkapenak: Ordezkoak kontratatzen direnean, hizkuntza irizpideak betetzea.

SEIGARRENA: BITARTEKO MATERIALAK

Ludoteka zerbitzua emateko, Arteako Udalak behar bezala egokitutako lokala dauka. Lokal hori dohainik lagako zaio adjudikaziodunari, zerbitzua emateko, kontratua indarrean dagoen bitartean.

Arteako Udalak adjudikaziodunaren esku utziko ditu zerbitzua emateko behar diren altzariak, material didaktiko eta fungiblea, dokumentu fondoak, ekipo informatikoa eta programak. dokumentu fondoak, ekipo informatikoa eta programak.

Udalak adjudikaziodunaren esku utziko du ludotekaren irudi korporatiboa. Adjudikaziodunak irudi korporatiboa erabili eta errespetatuko du eta behar izanez gero, baita Arteako Udalaren logoa.

Adjudikaziodunak urteko komunikazio plana proposatuko du eta Gazteria, Euskara eta Hezkuntza Arloek onartuko. Komunikazio plan horren arduraren Udalarena izango da.

Energia elektrikoa eta telefonoa erabiltzerakoan, adjudikaziodunak administrazio zuzenaren printzipioak bete behar ditu. Gastu horiek Arteako Udalak ordainduko ditu. Arteako Udalak uste badu energia elektrikoaren eta telefonoaren gastuak gehiegizkoak direla eta elkarte edo enpresak ez badu justifikatzen erabilera maila hori, administrazio honek elkarte edo enpresa adjudikaziodunari deskontatuko dio fakturan denboraren arabera dagokiona, entzunaldia eskaini ondoren.

Administrazioak adjudikaziodunaren esku jartzen dituen informazio, dokumentazio, informatika programak eta gainerako bitarteko edo datuak administrazioarenak dira, eta kontratatutako lanak egiteko beharrezkoak diren heinean soilik erabil edo erreproduzi daitezke. Adjudikaziodunak kontratua bukatzen denean itzultzeko edo suntsitzeko konpromisoa hartuko du.

ZAZPIGARRENA: GIZA BALIABIDEAK

Zerbitzua behar den moduan eskaini ahal izateko, hezitzaile bat jarriko du esleipendunak zerbitzua irekita dagoen ordutegian. Koordinazio eta dinamizazio lanak bete beharko ditu, bien artean gutxienez astean 15 orduko lanaldia betez (langileek programazioaren prestaketarako astean 2,5 ordu izango ditu eta 12,5 ordu umeen ekintzak burutzeko, 4. kategoriakoan). Urtean zehar egingo diren programazio berezietan, gabonetan, aste santuan eta udan langileari beharrezkoak diren ordu gehikuntzak egin beharko zaizkio kontratuan programazioen arabera.

Udalekuetarako 3 kategoriako zuzendari baten kontratazioa burutu beharko da eta gero ume kopuruaren arabera 4 kategoriako beharrezkoak diren begiraleak

OHARRA: Elkarte edo enpresa esleipendunak agiri hauetan deskribaturik dauden zerbitzuak emateko **kontratatzten dituen langileak, kontratua izenpetzean indarrean dagoen lurraldeko(Bizkaiko) GIZARTEKO ESKUHARTZE SEKTORERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAN** ezarrita dagoenari egokituko zaizkio, eta behar den moduan eguneratuko dira baldintzak kontratuak indarrean dirauen bitartean. Begirale mailan kontratatuko dira, gutxienez, langileak.



ARTEAKO UDALA

ARTEAKO UDALA
Herriko plaza, 1

48142 ARTEA (Bizkaia)

Dinamizazio lanak:

- Ludotekaren eguneroko jarduna planeatzea.
- Ludotekaren eguneroko jarduna abian jartzea.
- Ludotekaren eguneroko beharrezan jakitun egotea (behar den materiala, funtzionamendu arazoak ...).
- Ume erabiltzaileekin hezitzaile lanak betetzea.
- Gurasoekin zuzeneko harremana izatea haien seme-alabekin zerikusia duten gaietan.
- Koordinazio lanak egiten dituen pertsonarekin batera, ludotekaren antolaketa, funtzionamendu, programazio eta jarraipen lanak egitea.
- Oporraldietako programazioak: gabonak, ihauteriak, udalekuak...
- Herriko egun esanguratsuak: euskararen eguna, indarkeriaren kontrakoa, emakumearen eguna, santa ageda...
- Gaztetxoen programazioak

Koordinazio lanak:

- Udal arduradunekin koordinatzea.
- Beste gizarte eragile batzuekiko koordinazioa: beste udal arlo batzuk, tokiko elkarteak, mankomunitateko baliabideak...
- Lokalaren beharrezan bermatzea: erosketak, kontuak, administrazio eta kudeaketa lanak.

Zerbitzuan jarduten duten pertsonak ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- ✓ Gutxienez astialdiko begirale eta zuzendari tituloa edukitzea.
- ✓ EGA edo baliokidea.

ZORTZIGARRENA: ZERBITZUAREN ORDUTEGIAK

Arteako ludoteka irailaren hasieratik ekainaren bukaerara egongo da zabalik, astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik. Jendeari arreta egiteko ordutegia astelehenetik ostiralera, 16:30etatik 19:00etara izango da.

Ludoteka zabalik dagoen ordutegiari (astean 2,5 ordu) prestaketa lanerako orduak batu behar zaizkio, hau da, zerbitzuaren koordinaziorako, kudeaketarako eta planifikaziorako orduak. Arratsaldeko 16:00etan irekiko du hezitzaileak ludoteka eta 16:30ak arte prestaketa lanak burutuko ditu, sarrera irekirik utziaz umeak bertara sar daitezten.

Aste Santu eta Gabonetako oppraldietan ludotekak goizeko ordutegia izango du eta programazio berezia eskainiko da.

Udan ere programazio berezia burutuko da ekainaren azkenengo asteetan.

Ordutegia unean uneko beharren arabera alda daiteke, alderdi biak ados badaude, baldintza pleguak aldatu beharrik gabe, beti eta urteko zerbitzu ordu kopuruan aldaketarik ez badago.

Udalekuak uztaillaren lehen astean hasiko dira eta denak jarraian burutu behar dira. Datak aldatu daitezke, alderdi biak ados badaude, baldintza pleguak aldatu beharrik gabe, beti eta urteko zerbitzu ordu kopuruan aldaketarik ez badago.